



## Gipuzkoako Foru Aldundiko itzulpen mintegia **GIFAMI 2006-2007 ikasturterako programaren arrastoak**

2006-07-14

### **Egutegia**

Mintegi saioak hileko bigarren ostegunetan egingo ditugu, egutegiko jai egunen gorabeherak bestetara behartzen ez gaituztenetan izan ezik.

2006-2007 aldiko saioak egun hauetan izango dira:

2006	urriak 5
	azaroak 9
	abenduak 14
2007	urtarrilak 11
	otsailak 8
	martxoak 8
	apirilak 12
	maiatzak 10
	ekainak 14
	uztailak 12

### **Ordutegia**

Orain artekoari jarraituz, 10:00-13:00 bitartean egingo ditugu mintegi saioak.

### **Kanpoko ekarpenak**

Lehen proba gisa, 2006ko maiatzaren 18an Alfontso Mugikarekin (Elhuyar Fundazioa) egindako saioaren emaitza ezin hobea izan zen. Bide horri jarraitzeko asmoa sendotu beharra dago 2006-2007 ikasturterako. Hona hemen mintegikideen hautuak:

- Fernando Rey: Nafarroako Gobernuko itzultzailea, literatur itzultzailea, medikua.
- Ana Morales, Irune Payros: EHUko itzultzaileak, informatika gaietan eta itzulpen memorien kudeaketan arituak.



- Alfontso Mugika: Elhuyar Fundazioko lexikografoa, onomastikan aditua.
- Gaztelerazko estilistikari buruzko saioren bat antolatzeko aukera aztertu behar da; agian, Asetrad elkartearen bitartez antola daiteke.

### **Gaiak, tresnak**

2006-2007 ikasturtean mintegia bide onetik eramateko oharpen hauek egin dituzte mintegikideek:

- Mintegia saio bakoitzean testu bat aztergai izatea komeni da, aurrez hautatu eta mintegiko arduradunari bidalitakoa; testuak hautatzeko guztion partaidetza nahitaezkoa da.
- Testu zuzenketari tartetxo bat egin behar genioke, saio guztietan ez bada, aldi behin.
- Gifami bloga (<http://gifami.blogspot.com/>) maizago eta gehiago erabili behar genuke, mintegikideen arteko harremana gehiago sendotzeko. Blogean artikulua edo iruzkinak idazteko jarraibideak idatziz banatuko ditugu.